

«Je suis la police»

Koldo Sagasti

2015eko urtarrilaren 7an, Parisen, bi lagunek gerora Al-Qaeda aldarrikatuko zuen eraso odoltsua burutu zuten “Charlie Hebdo” aldizkari satirikoaren egoitzan. Orduantxe sortu zen “*Je suis Charlie*” lelo famatua. Miloika herritar zintzok argitalpenarekiko atxikimendua adierazi zuten esaldi haren bitartez. Alegia, agerkariaren aurkako ekintza armatua gaitzesteaz gain, eslogana bere egin zutenek kazetarekin eta haren ildo editorialarekin bat egiten zutela aldarrikatu zuten. Adierazpen askatasunean sinisten duen orok onartuko du, askatasun hori erabatekoa izango bada, edonori onartu behar zaiola, baita “Charlie Hebdo”-ren ka-

suan bezala ideia gaitzesgarriak zabaltzeko baliatzen duenari ere. Baina hedabide baten aurkako atentatua salatzetik hedabide horrek argitaratzen dituen mezu islamofobo, xenofobo eta misoginoekin bat egitera jauzi handia dago.

Bartzelonan iragan abuztuan gertatutako atentatuaren harira ere aho batekoak izan dira poliziari esker ona erakutsi dioten ahotsak. Komunikabide zein bozerra maile politikoen artean ez da zirrikiturik izan indar polizialen jarduna goraipatzeko orduan, baita euren burua ezkertiarizat dutenen artean ere. EH Bilduk, ERCK edota Podemosek ere, Espainiako Kongresuan, bere azken paragrafoan «poliziaren ausar-

diak askatasuna eta demokrazia bermatu» dituela jasotzen duen adierazpen instituzionala sinatu dute. Denek, disidentzia izpirik gabe, irentsi egin behar izan dute artalde akritikoaren lelo berria: “*Je suis la police*”. Ahaztu egingo zitzaizkien, nonbait, indar polizial horiek beroriek urteetan zehar egindako torturak, jazarpenak, gehiegikeriak, eta oinarritzko giza eskubideen urraketak. Orain hiritar zintzoen txaloak jasotzen dituzten horiexek dira, hain zuzen, askatasunaren eta demokraziaren arerio handienak, ez diezagutela sinestarazi nahi, pentsaera zuzenaren izenean, heroiak direnik. Bada oraindik oroimen pixka bati eusten dionik... •

Garaiz

Mirari Martiarena

Twitter bidez ikusi nuen lehengo astean Vigoko emakume baten eskela. Alabaren izenean zetorren eta idatzitakoa berezia iruditu zitzaidan. Amaren lagunak eta ezagunak ekitaldi alai batera gonbidatu zituen, beilatokiko zazpigarren salan. Ardoa edanez eta tortilla janez gogoratuko zutela zioen. Bukaeran loreak ez eramateko oharra zuen idatzita eskelak, loreetan gastatu beharrekoa gobernuz kanpoko erakunde bati emateko.

Deigarria iruditu zitzaidan “omenaldi alaia” jarri izana. Heriotzarekin omenaldiak lotzen ditugu zalantzarik gabe, baina omenaldi solemneak. Heriotzarekin zuzenean lotzen ditugu mina eta sufrimendua,

negarra eta tristura. Eta bai, gertuko baten heriotzak sortzen ditu horrelako sentimendu gazi-gozoak, ez pentsa ezagutzen ez ditudanik.

Badirudi tanatorioko pasilloetan barre egitea debekatua dagoela. Umoreak ez du tarterik eta gogoeta serioak bakarrik egin daitezke: “ez gara ezer” edo “denok dakigu hilko garela, baina tokatu arte...” modukoak. Heriotzaren aurrean errespetuz jokatu behar dela irakatsi digute, baina errespetu serioz bakarrik. Senideen eta ezagunen joan-etorrian ikus dadila sufritzen ari zarela, baina ez gehiegi. Tanatorioan pasatzen diren orduak “ordu hilak” direla esaten bazu zu zaplazteko bat emango dizunik azalduko da.

Ardoa edanez eta tortilla janez gogoratu zuten Vigoko emakume hura. Omenaldi alai bat egiteko ez dira osagai txarrenak. Ez dakit bertaratutakoek zer egingo zuten, baina imajinatu ditut hildakoari buruzko pasadizo xelebreak eta alaiak kontatuz mahaia- ren bueltan jarrita, guztiak barrez. Gehien gustatzen zitzaizkion abestiak abestuz. Seguru nago emakume horrek berak esanda utziko zuela nolako agurra nahi zuen. Lore sortarik gabekoa, gertukoa eta alaia. Ingu- ruari erakutsiz galera bat irribarrez bizi dai- tekeela eta minaren zama arinxego egin dezakeela irribarre batek. Alaitasunezko ne- gar malkoak ez dira hain gaziak izaten. Agian heriotza beste modu batera bizi be- harko genuke. Garaiz gaude oraindik. •